

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Burgi Nafarroako Gobernuaren etxebizitzen Alokairu Poltsari atxiki zaio

Laparra lehendakariordeak eta Elena Calvo alkateak sinatu duten hitzarmenak lau urte iraungo du, eta etxebizitza errazago eskuratzea eta inor bizi ez den higiezinak berrerabiltzea du helburu

Osteguna, 2017.eko abenduak 14

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak eta Burgiko alkate Elena Calvok lankidetzakordio bat sinatu dute ostegun honetan, udalerriko herritarrek errazago eskuratu dezaten etxebizitza. Horretarako, udalerria "Alokairu Poltsa" programan sartu da.

Aurreikusten da hitzarmenak lau urte iraungo duela, baina luza daiteke.

Hitzarmenak xedatzen du Burgiko Udalak, inguruneaz duen ezagutza eta udalerrian bizi direnekiko hurbiltasuna baliatuz, behar bezala emango duela programaren funtzionamenduaren berri, eta hura azkarrago kudeatuko duela.

Xedatzen du, halaber, Alokairu Poltsa kudeatzen duen Nasuvinsa sozietate publikoak pizgarriak eman behar dizkiela beren etxebizitza hutsa haren esku jartzen duten herritarrei, hala nola etxebizitza egoera onean itzultzea, etxebizitzan gerta litezkeen ezbeharrak estaltzen dituen arrisku anitzeko etxe-aseguru bat kontratatzea (edukitzailearena), eta errenta garaiz eta ziur kobratzea.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak, Eskubide Sozialetako Departamentuaren bitartez, diru-laguntzak emango dizkie maizterrei, ordaindu beharreko errentaren % 25, % 50, % 75 eta % 90ekoak, beren diru-sarreraren eta familia-unitatearen arabera. Hala, ordaintzeko moduko alokairuak har ditzakete familia horiek, beren gaitasun ekonomikoaren arabera.

Nafarroako Gobernuak baliabideak modu jasangarrian kudeatzeko hartu dituen neurrietako bat etxebizitza hutsak merkaturatzea da. Asmoa da erabiltzen ez diren etxebizitzak berrerabiltzea, eta, haien bidez, gainera, Nafarroako udalerrien hiriguneak dinamizatzea

Zuzeneko diru-laguntza etxejabeentzat



Laparra lehendakariordea eta Burgiko alkate Elena Calvo.

Alokatzaileei pizgarriak emateaz gain, beste udalerrri batzuekin sinatutako hitzarmenetan bezala, Nafarroako Gobernuak zuzeneko diru-laguntzak emango dizkie beren higiezinak alokairu sozialeko programaren esku jartzen dituzten etxejabeei. Diru-laguntza horiek errentaren hiru hilabeteko kuota adinakoak izango dira.

5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrria denez, hileko kuotaren zenbatekoa baremo honen arabera xedatzen da:

hiru euro etxebizitzarako metro karratu erabilgarriko, 30 euro garaje-plazako, eta euro bat trastelekurako metro karratu erabilgarriko, gehienez 15 metro karratura arte. Diru-laguntzaren zenbateko osoa kalkulatzeko, hileko errenta bider hiru egingo da. Hala, garajea duen 90 metro erabilgarriko etxebizitza baterako, 900 euro ingurukoa izango da diru-laguntza. Etxejabeak 848 420601 telefono-zenbakian eta Nafarroako Gobernuaren [webgune](http://www.navarra.es) honetan (http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Vivienda/Ciudadanos/) informa daitezke.

Burgirekiko hitzarmena beste toki-entitate batzuekin antzeko akordioak lortu ondoren iritsi da. Izan ere, Baztan 2016ko abenduan sartu zen Alokairu Poltsan; Tuteran eta Barañain 2017ko urtarrilean sartu ziren; Zangoza, otsailean; Antsoain, martxoan; Berriozarrek eta Burlatak apirilean sinatu zuten hitzarmena Foru Gobernuarekin; Berak, maiatzaren hasieran; eta Oibarrek aurtengo maiatzaren amaieran sinatu zuen hitzarmena.